

HAUR ETA NERABEENTZAKO EGOITZAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Jatorrizko familiekin bizi ezin diren adingabeentzako arreta

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

18 urtetik beherako pertsonak, beren beharrak familian bete ezin dituztenak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

18 urte baino gutxiago (salbuespenak salbuespen).

Administrazioaren tutoretzapean egotea.

Zertan datza?

Babeseko egoitza-zentroek bizikidetzarako aukera ematen diete beren familietatik aldi baterako banandu diren haur eta nerabeei, beren premiei behar bezala erantzun ahal izateko ([2.4.4 fitxa](#)). Zentro batean sartzearekin batera, jatorrizko familian esku-hartze bat aktibatu ohi da, banantzea eragin zuen egoera gainditzen laguntzeko eta haurra bere familia-ingurunera itzuli ahal izateko. Babes-zentroetan, bertan bizi diren adingabeen kopuru, adin eta ezaugarrietara egokitutako hezkuntza-langileak egon ohi dira etengabe.

Norentzat?

Administrazioaren tutoretzapean dauden **18 urtetik beherako** pertsonak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte baino gutxiago izatea. Salbuespen gisa, emantzipazio-programa bati heltzen dioten gazteak erabiltzaile izan ahalko dira, gehienez ere 18 hilabetez.

Egoitza-harrerako **neurri administratibo** edo **judizial** baten xede izatea.

Aitak, amak edo tutoreak aldi baterako **ezin zaindu izatea, egoera larriak direla-eta.**

Haurren edo nerabearen zaintza dagokion **Foru Aldundiari esleitu** izana, epaileak hala erabakita.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

Informazio gehiago:

- [Haur eta nerabeentzako egoitzak Araban](#)
- [Haur eta nerabeentzako egoitzak Bizkaian](#)
- [Haur eta nerabeentzako egoitzak Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)